



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 9a

46. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-25/LEY-00001. Foru Legea, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-25/PRO-00009. Foru-legea, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).

—11-25/PRO-00002. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

—11-25/PRO-00003. Foru-lege proposamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—11-25/PRO-00006. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

—11-25/PRO-00008. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-25/MOC-00044. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu eta bere egiten baitu Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean taldeartekoen XXVIII. Konferentziak onetsitako Adierazpena. Bizikidetasunaren Eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (8. or.).

—11-24/MOC-00078. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (8. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

## **11-25/LEY-00001. Foru Legea, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko martxoaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duena**

#### HITZAURREA

Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen bidez sortu zen. Lege horren 6.2 artikuluan, agentziaren sorkuntzaz gain, xedatzen da ezen erakunde hori Nafarroako Gobernuan energiaren arloko eskumenak dituen departamentuaren plangintza eta politika orokorreko jarraibideen esanetara egonen dela eta departamentu horri atxikiko zaiola.

Aipaturiko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz, honako foru lege honen bitartez Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen da, Foru-sektore Publiko Institutuzionalaren barrenean sartuta, eta zehazturik haren nortasun juridikoa, erakunde hori eratuz lortu nahi diren helburuak eta esleitzen zaizkion eginkizunak.

**1. artikulua.** Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia.

1. NETA-Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia, formaz, enpresa-erakunde publikoa izanen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari

buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 38.a) artikuluan aurreikusitako erakunde publikoetako, nortasun juridiko bereki eta bereiziduna eta jarduteko gaitasun eta kudeatze-autonomia osoduna, horrek ukatu gabe Foru Komunitateko Administrazioarekin tutoretza-harremana izatea.

2. Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia Nafarroako Gobernuan energiaren arloko eskumenak dituen departamentuari atxikita dago, eta departamentu horren plangintzako eta politika orokorreko jarraibideen esanetara. Departamentu horrek Agentziaren gain ordenamendu juridikoak ematen dizkion kontrol- eta tutoretza-ahalmenak beteko ditu.

3. Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziak gauzatzen dituen jarduerak aintzat hartuko dute genero-ikuspegia klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloan, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legean xedatzen denarekin bat.

4. Era berean, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziak eginen dituen jarduerak kontuan hartuko dute irisgarritasun unibertsalaren printzipioa, halatan jarraikiz Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 25eko 31/2022 Foru Legean xedatzen denari.

#### **2. artikulua.** Helburuak.

Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziak helburu hauek ditu:

a) Lagungarri izatea Foru Komunitateak eta Estatuak energia-trantsizioaren alorrean dituzten konpromisoak betetzeko.

b) Energia-eredu jasangarria lortzea, energia-iturri berriztagarrietan, sorkuntza banatuan eta autokontsumoan oinarrituta egonen dena.

c) Klima-aldaketaren eta haren ondorioen kontra borrokatzea, eta ondorio horietarako egokitzapena sustatzea.

d) Jarduketak sustatu eta gauzatzea energia-efizientziaren, -kudeaketaren eta -aurrezpenaren arloan.

e) Energia-trantsizioari buruzko azterlanak eta analisiak egitea.

f) Energia-ekimen publikoa sustatzea erakunde-esparru guztietan.

g) Nafarroan energia berriztagarrien ekoizpena, sorkuntza banatua eta autokontsumoa sustatzea, hala nola eolikoarena, fotovoltaiakoarena, eguzki-energia termikoarena, biomasarena, geotermiarena eta beste batzuen, ahaleginak eginik bazter guztietara zabaltzeko 0 km-ko energia, Nafarroako biztanleen subiranotasun energetikoa erraztu eta faboraturik, eta energiaren demokratizazioa bideraturik.

h) Saiatzea Nafarroa lider izan dadin energiaren sektoreko ezagutzan eta berrikuntzan.

### 3. artikulua. Eginkizunak.

Bere helburuak betetzeko, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziak bere estatutuetan jasoko diren eginkizunak beteko ditu, zeinak, oro har, honako hauek izanen baitira:

a) Nafarroako Energia Plana proposatu, taxutu eta egitea, bai eta egokitzat jotzen diren plan horren aldaketak ere.

b) Nafarroako Energia Plana osoki betearazteko behar diren ekintzak egitea, plan horretan jasotako xedeak betetzen direla zaintzea, eta horien betetze-mailaren jarraipena egitea.

c) Nafarroan honako hauen ezarpena sustatu eta kudeaketa egitea: energia berriztagarria ekoizteko, autokontsumorako eta sorkuntza banaturako sistemak, energia biltegitzeko edo kudeatzeko sistemak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko sistemak, mugikortasun jasangarriko proiektuak, bai eta antzeko beste edozein ere.

d) Bere helburuak betetzeko, zuzenean egitea inbertsioak, edo mailegu, abal nahiz bestelako tresnen bidez aldezte entitate publikoek egindako inbertsioak. Entitate pribatuen inbertsioei dago-kienez, laguntzak eta parte-hartzeak lehentasunez bideratuko dira irabazi-asmorik gabeko entitateek egindakoetara, eta halako inbertsiotzat joko dira energia-komunitateek egindakoak.

Entitate pribatuen kasuan, irabazi-asmokoak izan edo ez, beharrezkoa izanen da SODENA

enpresa publikoak eginiko ekonomia- eta finantza-bideragarritasunari buruzko txostena.

e) Merkataritza-sozietateak sortu edo horietan parte hartzea, argindarra lehia askeko araubidean komertzializatzeko; autokontsumoko instalazioen energia-soberakinen salmenta kudeatzea; kontsumoari buruzko datuak bildu eta aztertzea; eta parte hartzea eskariaren kudeaketa adimentsuan eta sistema elektrikoaren beste zerbitzu batzuetan.

f) Bere ekimenez edo sektore pribatuko beste enpresa batzuekin elkarlanean arituz, energiaren arloan Nafarroarentzat aitzindariak edo estrategikoak diren proiektuen garapena sustatzea.

g) Energia-aurrezpen eta -efizientzia eta energiaren kudeaketa adimentsua bultzatzeko ekintzak proposatu, erabaki eta gauzatzea; energia berriztagarrien erabilera bultzatzea autokontsumorako eta sorkuntza banaturako, modu jasangarrian kudeatuz tokiko baliabideak eta baliabide berriztagarriak; eta garraiobide elektrikoaren eta zero isurketako ibilgailuen erabilera sustatzea.

h) Neurriak ezarri eta kudeatzea, finantzaketa-sistema berritzaileak barne, sustatze aldera energia-aurrezpena eta -efizientzia, energiaren kudeaketa adimentsua, garraiobide elektrikoak, energia berriztagarriak, hiri adimendunak –smartcity direlakoak– eta smartgrid izenekoak, xedetzat harturik energiaren aurrezpena, energia-sorkuntza banatua, energia-banaketako sare adimentsuen ezarpena eta isurketen gutxitzea.

Finantzaketa-sistema berritzaileen kasuan, beharrezkoa izanen da SODENA enpresa publikoak txostena egitea ekonomia- eta finantza-bideragarritasunari buruz.

i) Azterketak eta txosten teknikoak egitea energiaren arloko teknologia eta sistemei, energia-kontsumoko ohiturei eta sektore ekonomiko desberdinen ahuleziei buruz.

j) Laguntza ematea Nafarroako energia-azpiegituren planak taxutzen eta haien jarraipena egiten.

k) Herritarren parte-hartzeari irekitzea agentziak sustatzen dituen energia-proiektuak, hala haien taxuketari nola finantzaketari dagokionez.

l) Tokiko energia-komunitateak sustatzea, aholkularitza emanez halakoak eratzeko interesa duten pertsoneri eta toki-erakundeei.

m) Agentziaren eginkizun eta helburuekin zerkusia duten ekimenak abian jartzeko Foru Komunitate, nazio edo nazioarte mailako lehia-proiektuetan parte hartzea.

n) Energiaren arloko aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea administrazio publiko desberdinei, hala foru-administrazioari nola toki-administrazioei, bai eta profesionalentzako prestakuntza espezializatua ere.

ñ) Laguntza teknikoa ematea energiaren arloko kudeatzaileei eta Nafarroako administrazio publiko desberdinetako kontratazio-unitateei, energiaren erabilera arrazionalizatzeko programak egitea eta sektore publikoan energia-baliabide berriztagarrien aprobetxamendua sustatzea.

o) Toki-erakundeei laguntza teknikoa eskaintzea, klimarako eta energia jasangarrirako ekintza-planak idazteko, exekutatzeko eta berrikusteko.

p) Jarduketa eta inbertsio publikoak eta pribatuak sustatzea karbono-dioxidoaren xurgapenaren arloan, karbono-hustubideen babes eta hobekuntzaren arloan eta klima-aldaketarako egokitzapenaren arloan.

q) Jarduketa eta inbertsio publiko eta pribatuak sustatzea, I+G+b proiektuak egitekoak energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren kontrako borrokaren alorrean.

r) Herritarrentzako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak aurrera eramatea, energiaren demokratizazioa bultzatzeko eta herritarrei bai energiaren arloko aholkularitza bai tresna teknikoak eta prestakuntzakoak eskaintzeko.

s) Energiaren eta klima-aldaketaren gaietan profesionalen prestakuntza bultzatzea.

t) Bere Estatutueta jasotako beste edozein jarduera, eta bere helburuak osoki betetzeko beharrezkoak diren beste batzuk.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Energia-trantsizioko politikak exekutatzeko beharrezkoak diren datu estatistikoen tratamendua.

Botere publikoak, herritarrak, enpresak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta enpresari-elkarteak behartuta egonen dira Agentziarekin lankidetzan aritzera eta energia-trantsizioko politikak exekutatzeko beharrezkoak diren datu estatistikoa hari ematera, ezartzen diren formatuei eta konfidentziasun-irizpideei jarraituz. Posible denean, pertsonen buruzko estatistiketan sexuaren aldagaia ere jasoko da, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 19. artikularekin bat.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Lankidetzahitzarmenak.

Administrazio publikoen arteko lankidetzahitzarmenek gehenez ere hogeita hamar urteko indarraldia izanen dute, zerikusia dutenean energia berriztagarriaren sorkuntzarako, energia-biltegiratzerako edo karbono-xurgapenerako proiektuekin.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak eginiko kontrola.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak zilegi izanen du Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziari dagokionez eginkizun haiek betetzea, zeinak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 2. artikularen 1.b) eta 2. apartatueta jasotzen baitira.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Estatutuak onestea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak hasierako jarduketa-plana eta Estatutuak onetsiko ditu Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziarentzat, jarraiturik martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeari, zeina Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Institutuzionalari buruzkoa baita.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Parlamentuak eginiko kontrola.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari aurkeztuko dio Energia-trantsizioaren Agentziaren Hasierako Jarduketa-plana.

2. Urtero, Nafarroako Gobernuak Agentziaren kudeaketari buruzko oroitidazki bat aurkeztuko dio, idatziz, Nafarroako Parlamentuan energia-alorrean eskudun den batzordeari, ekitaldi ekonomikoaren itxieraren ondoko lehen hiruhilekoaren barrenean. Horrekin batera, hurrengo ekitaldirako jarduketa-plana ere aurkeztuko dio.

**Azken xedapenetako lehena.** Arauak emateko gaitzuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta exekutatzeko beharrezkoak diren arauak jaulkitzeko.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-25/PRO-00009. Foru-legea, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duena**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko martxoaren 27an egindako bilkuran, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea aldatzen duena**

**HITZAURREA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44. artikulua hala xedaturik, Nafarroak eskumen osoa dauka ikuskizunen alorrean. Eskumen hori baliatuz, Nafarroako Foru Komunitateak martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea onetsi zuen, ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituena.

Nafarroako Gobernuak erregelamendu-sorta bat onetsiz garatu du arau hori. Halatan, ekainaren 29ko 249/1992 Foru Dekretuaren bitartez Zezen Ikuskizunen Erregelamendua onetsi zen; eta irailaren 23ko 202/2002 Foru Dekretuaren bitartez, Establezimendu, ikuskizun publiko eta josteta jardueren Katalogoa onetsi eta Enpresa eta Lokalen Erregistroak arautzen dira.

Nafarroaren araudi berekirik ezean, eta araudi horrekin kontraesanean ez dagoen orotan, aplikatu beharrekoak dira gai horri buruzko estatu-erregelamenduak, Nafarroako ordenamendu juridikoaren ordezkotza zuzenbide gisa; bereziki, abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretua, zeinaren bidez

onesten baita Ikuskizun publikoetako eta josteta-jardueretako poliziaren Erregelamendu Orokorra.

Ikuskizun publikoak eta josteta-jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 5. artikulua dioenez, eskatzaileak frogatu behar du, kasuko jarduera-lizentzia eman ahal izan dakion, lokalak bete egiten dituela oinarriko eraikingintza-arauean eta ikuskizun edo josteta-jarduera mota bakoitzerako egiten diren berariazko erregelamenduetan eskatzen diren baldintza teknikoak.

Oinarriko eraikingintza-araua indargabetua izan zen eta, beraz, beharrezkotzat jotzen da aipatu artikulua aldatzea, oinarriko eraikingintza-arauari buruzko aipamena ezabatuz, eta ikuskizun publikoetarako nahiz josteta-jardueretarako lokal guztientzat ezarriz martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuz onetsitako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharra.

Eraikingintzaren Kode Teknikoa onetsi zen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legean jasotako xedapenak indarrean zeudelarik, eta lau urtean behin aldizkako berrikuspena egin behar zaio. Horrenbestez, eta instalazio batzuen eraikuntza-obren norainokoa kontuan harturik, hein handiagoan betetzen ditu gaur egun beharrezkoak diren baldintza orokor, funtzional eta teknikoak. Horrek guztiak ez du ezertan eragozten Nafarroako Gobernuak geroago foru dekretu bat onestea, zeinaren bidez ezartzen baitira Nafarroan establezimendu publiko guztiek bete beharreko baldintza teknikoak.

Eraikingintza Antolatzeazko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 3.2 artikuluan Eraikingintzaren Kode Teknikoa definitzen da eraikinen eta haien instalazioen oinarriko kalitate-baldintzak ezartzen dituen arau-esparru gisa, halakoa zeinak ahalbidetu egiten baitu aurreko oinarriko baldintza horien betetzea, zeinak funtzionaltasun, segurtasun eta bizigarritasunari buruzkoak baitira. Aldizka

eguneratuko da, teknikak duen bilakaeraren eta gizartearen eskariaren arabera.

Eraikingintzaren Kode Teknikoaren aplikazioaren bidez, establezimendu publikoetako instalazioen segurtasunik handiena bermatuko da, adibidez honelako ebakuazio-baldintzei dagokienez: korridoreak, harmailetak eskailerak, galeriak, ebakuazio-korridoreak eta publikoarentzako edonolako instalazio eta tokietan. Ez da beharrezkoa aplikatzea oraindik indargabetu gabe dauden Ikuskizun Publiko eta Josteta Jardueretako Poliziako Erregelamendu Orokorren artikulua batzuk (erregelamendu hori abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuz onetsi zen), aplikatuak izaten ari zirenak foru-ordenamendu juridikoaren ordezkotuzuzenbide gisa.

Horrela, argiagotu egiten da aplikatzekoa den araubide juridikoa, bateratu egiten dira bai teilatuturpeko bai zerupeko kirol-instalazioetarako eskaturiko baldintza teknikoak, eta establezimendu publikoetako instalazioen segurtasunik erabatekoena bermatzen da, horretarako aplikatuz Eraikingintzaren Kode Teknikoa eta Nafarroako Foru Komunitateak onetsi litzakeen geroagoko arauak.

Azaldutakoagatik, proposatzen da foru lege bat onetsi dadila, zeinaren bitartez aldatuko baita Ikus-

kizun Publikoetako eta Josteta Jardueretako buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 5. artikulua.

**Artikulu bakarra.** Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen aldaketa.

5. artikulua aldatzen da, eta honela idatzita gelditzen da:

“5. artikulua

Kasuko jarduera-lizentzia emateko, beharrezkoa izan da eskatzaileak frogatu dezala lokalak bete egiten dituela zenbait baldintza tekniko, zeinak ezarrita baitaude martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuz onetsitako Eraikingintzaren Kode Teknikoan eta ikuskizun nahiz josteta-jarduera mota bakoitzerako berariazko erregelamenduetan, salbuespena izanik abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuz onetsitako Ikuskizun publikoetako eta josteta-jardueretako poliziaren Erregelamendu Orokorren I. Tituluko II. Kapituluko 26, 27, 28, 29, 32 eta 33. artikulua, zeinak ez baitira Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeko modukoak”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek NAO n argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

---

## **11-25/PRO-00002. Foru-lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko apirilaren 3an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko foru-lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **11-25/PRO-00003. Foru-lege proposamena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko apirilaren 3an egindako bilkuran, ezetsi egin du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-25/PRO-00006. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko martxoaren 27an egindako bilkuran, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena ezetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-25/PRO-00008. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko apirilaren 3an egindako bilkuran, ezetsi egin du Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko foru-lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-25/MOC-00044. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu eta bere egiten baitu Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean taldeartekoen XXVIII. Konferentziak onetsitako Adierazpena**

*BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2025ko apirilaren 1ean onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu eta bere egiten baitu Bakea eta Askatasuna Sahara Men-

debaldean taldeartekoen XXVIII. Konferentziak onetsitako Adierazpena. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak babestu eta bere egiten du Bakea eta Askatasuna Sahara Mendebaldean taldeartekoen XXVIII. Konferentziak onetsitako Adierazpena”.

Iruñean, 2025eko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-24/MOC-00078. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan**

*ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

“Osasun Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ez du bete

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ama-esneko bankua sor dezan”.

Iruñean, 2025eko apirilaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias